GEPETO BERRIAK

EZIZENA: Mc-Intox

Garrantzitsuena ez da bizirik irautea ,gizatiar izaten jarraitzea baizik (Orson Welles)

Bukaera honi hasiera emateko irrikitan aurkitzen naiz. Badakidalako seme, nire errugabetasunaren berri emango diezula epaileari zein epaimahai herritarrari. Eta mailuak mahaia jotzen duenean, azkenik aske izango gara biok. Epaitutakoa ni naizen arren, biok gaudelako auzitan. Jurisprudentzia gauza bat delako eta sententziatua egotea, beste bat.

Bestalde Gepeto maitea, nik ez dut sudurra luzatuko zaidanaren beldurrik. Horretarako prestatu naizelako azken urte guzti hauetan, ni guztiz izan bitartean beste bat izaten jarraitzeko. Zuk irakatsi dizkidazun hainbat ikasgai barneratu ostean, orain lezioa nik eman behar diet. Baina zure laguntza beharko dut, justiziaren panpin eta titere izateaz nazkatu naizen honetan ez dudalako bizitza berri honen haririk galdu nahi. Guztiz ni izateko gutxi falta zaidalako.

Egurrean aritu da prentsa nire aurka azken aldian, egurrezko mailuak soilik eurak balira bezala. Egurra materia bizia eta moldagarria da, pertsonak bezalakoa eta prentsak jakin beharko luke pertsona batzuk mailu bilakatu gaitezkeela baldin eta baldintzak aldatzen badira. Gu ere biziak eta moldagarriak izan gaitezkeelako, are eta gehiago lege eta araudi kontuetan. Gaur gu kolpatzen gaituztenak mailukatu ditzazkegulako etorkizun hurbil batean.

Yosleidy Bolivar Amores naiz, politikaria lanbidez eta bere ibilbidea arriskuan dakusana hilketa salaketa baten ondorioz. Semea erailtzea egozten didate, frogarik ez duten arren. Soilik konjeturak. Ni eta nire semearen arteko harreman txarraz jakitun zen mundu osoa eta batez ere, prentsa arrosa. Politikaren lehen lerrora salto egin nuenetik, lerroburuetan gure harremanaren gorabeherak agertzen ziren, politikari kontserbadorearen eta seme iraultzailearen betiereko gerla, enegarrenez errepikatua.

Eta krimenik handiena ni kondenatua ateratzea zatekeenez, prestutasuna azaldu dut lehen unetik justiziarekin kolaboratzeko.

Garai likido hauetan, ziklo garrantzitsu batean murgildurik aurkitzen naiz. Nire ibilbideko gailurrean aurkitzen naiz, olatu aparretan eta hautagai izatetik hautatua izatera pasa naiz.

Horregatik, herriko zinegotzi kargua aspaldi utzia dudan honetan, tribunalaren aurreko zin egotziak kezkatzen nau oraintxe bertan.

Nik ez nuen semerik bortxaz erail eta ziur nago semeak berak gauza bera esango duela epailearen aurrean. Bai, gorpu aurkitzen delako aspaldi xamarretik semea baina ez guztiz hilotz; kasua oraindik ez delako guztiz itxi. Baina ziklo berriak garai berriak dakartza eta Adimen Artifizialak bere lekua topatu berri du justizian. Justizia itsu begitantzen zaigunez gizakioi, begiak irekitzera datorkigu teknologia. Eta teknologia berrien neutraltasun eta aseptikotasunak, benetako berdintasuna ezarriko omen du orain arteko berdinkeriatik ihes eginez. Abokatu guztiak ez direlako berdinak, fiskaltzaren hitzak edo defentsarenak parekideak ez diren heinean. Eta ez naiz genero rolez edo ekonomia arrakalaz soilik ari. Zenbait aurreiritziz ari naiz, nire baitan gorpuzten eta pairatzen ditudan hainbat topikoz, adibidez.

Ama bakar, azal beltzeko eta Hego Ameriketako etorkin guztiok, errudunak gara hasi aurretik. Eta gu gara frogak aurkeztu behar ditugunak gure errugabetasuna argi gelditu dadin. Kelly bezala lan egiten nuen hotel hartan, bezeroek lapurtzen zituzten toallak etxera nik eramaten nituela egozten zidaten. Are eta gehiago ama bakarra izanik, ustezko froga guztiek zure aurka egiten dute premia larrian bizi bazara egunerokotasunean.

Kondena bat jasotzeko boleto guztiak neuzkala argi neukan epaiketa hasi aurretik, nire status berria errezeloz begiratzen dutelako askok. Igogailu sozialaren gizartean, tranpolina erabili izana egozten didaten berdinak dira.

Baina Adimen Artifizialak halako uste arbitrario eta anbiguoekin amaituko du. Harago ikusten baitu, Gepetok Pinotxorengan ez zuelako egurrezko jostailu bat soilik ikusi, gizaki bat baino. Horregatik lortu du Adimen Artifizialak jainkoek soilik lortu dezaketena: Zu berpiztea.

Eta zuri, seme, zer esango dizut? Ez genuen bizitza berdin ikusten, begirada ez genuelako partekatzen. Txikia zineneko so konplize haiek, nerabetasunaren hatzaparretan erori zinenean bakantzen joan ziren. Aurrera ateratzeko hain ezinbestekoak nituen hoteleko Kelly eta zerbitzari gisa nituen bi lanek ere, ez zidaten askorik lagundu urte zail haietan zure ondoan present egoten. Lasaitasunik ez dago sosegua uneoro bilatzen duenaren baitan. Eta gure kasuan, sosegua *xoxegua*rekin lotua zegoen urte zail haietan. Eta aurrerago Venezuelako ikasketak noizbait konbalidatu eta alderdiko administrari laguntzaile gisa hasi nintzenean, politikarako nire grina deitoratzen zenuen behin eta berriz, seme. Eta zuk ere

epaitu eta sententziatu ninduzun: *Ama, exotikoa eta beltzarana zarelako soilik egiten ari zara alderdian gora. Haientzako ez zara gutarra, soilik marketina eta bozkak zara.*

Garai hartan alderdian gora egitea, herri eta bailara mailako mitinetan agertu eta hitz batzuk egitea zen oraindik. Zinegotzi kargurik ere ez neukan baina euskal gizartearen utzikeria ikusten nuen herri mailako politikagintzan. Rock Radical Vasco, Martxa eta Borroka eta Altos Hornos edo Euskaldunako epika zaharkituetan bertan goxo bizitzen jarraitzen zuten askok munduak biraka jarraitzen zuen bitartean. Baina haiek jada ez zuten mundua hankaz gora jartzeko gogorik eta herrigintzan sinisten genuenok kritikatzen gintuzten. Geldirik egotea egozten ziguten. Agian hala izango zen batzuetan baina geldirik egotea eta ezer ere ez egitea, ez dira gauza bera. Geldi-geldirik ongi begiratzen jakitea badelako aurrera egiten jarraitzeko modu bat.

Lanetik irten osteko bilera eta mitin amaigabeen ondotik berandu etxeratzen nintzenetan, *“zertan bihurtzen ari zaren, ama”* galdera kutsuko baieztapenez kondenatzen ninduzun. Baina ni bakarrik ikusten ninduzun bilakaeran murgildua, metamorfosia biongan gertatzen ari zen bitartean. Elkarrekin batzartu eta eztabaidatu ostean, biok biltzen ginelako bakoitza bere mundura.

Ze, esaidazu egia: Zuk hainbeste maite zenuen ekologia ez al da benetan dagoen politikarik ankerrena? Dena zuria edo beltza ikusten den politika, esperantzaren berde kolorerik gabe, politika deuseztaile guztien ama! Zure fauna, mendikate eta ibaiekin erabat tematua jarraitzen zenuelako pandemia etorri zenetik. Edo zure hitzetan, *ekarri zutenetik.* Eta ekologiara zabaldu zinenetik, zuk itxialdian jarraitzen zenuelako, normaltasun berriak negazionista bihurtu zintuelarik. Zure askatasuna eta elkarbizitza itxiagoak ziren ordutik hona. Normaltasun berria norma-tasun berriarekin nahasten zenuelako. Zientzia berrogeialdian jartzen ikasi zenuen orduan. Eta ebidentzia zientifikoari, inbidentziarekin erantzuten.

Egunerokotasunak, gaurkotasun gutxi zekarren zuretzat. Eta are gutxiago, hurkotasunik. Gorroto zenituen nik defendatzen nituen errota eolikoak eta errausketa plantak, teknologia ere gorroto zenuelako. Alternatiboa zinen baina ez zenuen alternatibarik proposatzen, ezezkoaren oinbiko baieztapen laiko eta aldi berean protestante bat zinen soilik. Zuk ez zenuen herria egiten, komunitatea baizik. Soilik zure komunitatea. Gero herrari eta alderrai ibiltzeko. Auzolanetik gutxi eta lanak auzoan.

*Furgesia*ren zati zinen azken aldian, langile klasekoa baina…zein klasetako langilea? Asteburuetan hiritik ihes egin eta Pirineoetako olatu berriaren parte, furgoneta Eko-bio-txatxiguai horietako nomada. Dena zalantzan jartzen abilak zaretelako zuen buruak izan ezik. Hedonismo Eko-friendly honetan, berdetasunean berdekeria praktikatzen duzue asteburuero eta zuen akelarre ideologikoetako ardi beltza, zentzuz pentsatzen duen hura da.

Ni ere gaztea eta ameslaria izan nintzen baina beste balio batzuk nituen. Ni egunez eguneko etorkizunean bizi nintzen eta nire errebeldia eraikitzailea zen. Nik iraultza astean zehar egiten nuen biok aurrera ateratzen tematuta eta herrian inplikatuz. Gogoratzen dut oraindik nola begiratzen zidaten herrira iritsi berritan eta hiru aldiz azaldu behar izan nuela herrikideen aurrean konfidantzazkoa nintzela. *Gaztea izateko, fundamentua daukazu* lehenik, *etorkina izateko interesa azaltzen duzu* ondoren eta *ama izateko, zure denbora guri eskeiniz eskuzabala zara* azkenik. Jokoaren arauak haiek ziren, nik frogatu beharra neukan zer nintzen edo ez nintzen. Nintzena azaltzeko, azala utzi behar bidean; zentzu guztietan.

Orain justiziarekin gertatzen zaidan bezala.

Politikak betetzen eta bestetzen ninduen, politikak besteen onuran pentsatzean datzalako. Zerbitzu publikoa eta doakoa, doan ez dena ateratzen maiz. Eta zuk etxeko sofatik egin nahi izaten zenuen iraultza, Akira, Pokemon eta Ghost in the Shell bezalako manga eta anime serieak ikusiz, bortizkeria eta matxismo atzerakoiz doituriko gidoietan murgilduta. Gazte infantilizatuak zaretelako gaur egungo konspiranoiko asko. Animearen argi itsugarriek, flashek eta eztanda intermitenteek txunditzen zintuzten, mendiko zure Ray-Ban moderno haiekin ikusten zenituenak, selfieak atera bitartean. Eta kurioski, sentsibilitatea azaltzen zenuen marrazki haiekiko eta negar malkotan amaitzen zenuen aldiro japoniar melodia melenga haietan kulunkatuta. Nire magalik ez eta fikzioaren altzoa eta abaroa bilatzen zenuen. Gaztetasunaren eferbeszentzia da jakinduriaren aurkako aspirinarik onena, antza.

Eta amildegiranzko zure korronteari segi behar horretan, egunerokotasunetik medizina baztertu eta botika eta ukenduen alde egin zenuen. *Naturak salbatuko gaitu hura zainduz gero, benetako sendagaiak tradizioan datzalako* azaltzen zenidan argia ikusi berri duen guru baten antzera. Eta lagunarteko tertuliak zenituen sendagai hiria bihurtu zitzaizunetik arrisku. Bigarren pisuan bizi zinen baina bigarren estratosferan bizi bazina bezala zen adimen kulturalari erreparatuz gero.

Orain, hain modan dagoen hiri turistiko eta gentrifikatu berean. Handikeria kulturalak eta ordenagailu hipermoderno kuantikoak lerroburuetara ekarri duen hiriburu berean. Zu berri hura jaiotzen ikusi zuen hiriburua.

Hil zintuzten arratsaldean, lagunekin partekatzen zenuen eta nik ordaintzen nizun estudioan bakarrik aurkitzen zinen etxera sartu eta lapurretaren biktima izan zinenean. Atea beti irekita mantentzen zenuen zure lagun ekologistentzat argia amatatu zizutenean. Eta bidean geratu ziren zure ametsak eta ametsez beteriko agenda hura: Gaur energia berriztagarrien inguruko bilera bat hemen, bihar eraldaketaren inguruko sinposium bat han, asanbladak etxean… Lapurrek ezer gutxi eraman zutelako harriturik agertu zen polizia, soilik agenda falta baitzen. *Ezer gutxi lapurtu? Bizitza ebatsi diote!* garrasi egiten nien nik. Portatilla, mugikorra eta mesanotxeko Ray-Banak hortxe zeuden lagunak iritsi eta Pokemonen azkeneko asaltoek pantallan jarraitzen zuten bitartean, hilotz topatu zintuztenean.

Poliziak agendarekiko interesa erakutsi zuen eta horren inguruan galdekatu ninduten. Zure bilera eta apunteen berri eman nien, herria zeharkatzen zuen ibaiarekin obsesionatua zeundela I+G+B garatzen zuen EusCognity AI enpresa begien artean hartua zeneukala esanda. Enpresa hori eraiki zenetik, ibaiaren inguruko fauna eta natura deusezten ari zirenaren zantzuak omen zenituen eta bere ibilbidearen inguruko eskabadora eta kamioiek, ibaiaren aurkako erasoa profetizatzen omen zizuten.

Bi hankeko hominido eta *Phono* Sapiens batzuk eboluzioa eta progresoa nekez bereizten dituzue. Eskerrak Gepeto orojakileak zuen inboluzioaren aurrean gure lur, itsaso eta aireko kontrola duen, gure itsasargia bilakatu delarik itzalen garai ilun hauetan. Gepetok beldurra ematen dit uste dudalako nire eta beste lurtar guztion agintarian bihurtuko dela laster, Trump, Putin eta beste politikarien gainetik. Baina oraindik denbora gelditzen da horretarako eta politikari gisa, epe motzera begira bakarrik egiten ditut planak. Eta oraingoz seme, Gepetok zu zauzka bere harietan katramilatua.

Bere bidez emango duzun testigantzak nire karrera politikoa salbatu eta susmopetik libratuko nauelako. Epaimahaiaren aurreko zure testigantzan, haien aurpegirik ikusterik ezin izan zenituen lapurrek nola ito zintuzten azalduko diezu, atzetik eraso zintuztelako. Adimen Artifizialak jaioarazi ez baina azkenekoz munduratzen zaituenean. Eta Adimen Artifizialak nik nahi dudana esanaraziko dizu nik hil zintudala jakin ez dezan munduak. Gaur egun, Adimen Artifizialez diseinaturiko bertsio eguneratuak defendatzea legezkoa delako.Christopher Pelkeyren kasuak halako testigantzen jurisprudentzia zabaldu duelako. Eta enpirikoki

frogatua dagoelako hilik dagoen baten hitzak epaimahai herrikoiaren bihotzarengan duen indarra edozein testigu bizidunena baino indartsuago dela. Gizakiok emozionalak izaten jarraitzen dugulako neutraltasuna eta ekidistantzia eskatzen digutenean ere. Adimen Artifizialak algoritmoetan topatu du Rosetta harri berria eta nire kasuan, etorkizuna bere bidez idatziko dut.

Jada ez du axolarik zure talde ekologista arazo bat bihurtzen ari zenaren aferak, zu gabe nekez egingo baitute aurrera. Jada ez dute axolarik pandemiako mezu negazionistek zugan izan zuten eragina eta epilepsiaren aurkako pilulak hartzeari uko egiteak ekarri dizkizun kalteak. Jada ez du axolarik apropos oparitu nizun Pokemonen azken film argitsu eta flasheatuena Ray Banik gabe ikusten hasi eta gaizki sentitzean, mesanotxean betaurrekoak falta zirela sentitu zenuen izuak.

Nik nahita probokatu nizun epilepsiak jota hil zinelako pantailaren aurrean eta hilotz zinenean jarri nizkizulako eskuak lepoan, ubeldura ez identifikagarri haiei esker bortxazko erailketa bat izan zenezan lortu dudalako, susmoa nire esku ahul eta indargeetatik aldenduz. Esan dizut hasieratik: Nik ez dut semerik bortxaz hil. Hori bai, agenda kentzea ez zitzaidan ahaztu, nire bisitaren eguna eta ordua apuntatua zeneukalako bertan, beste bilera eta zita guztien ondoan. Elkartu bezain laster, nik aurretik planifikatu bezala eztabaidatzen hasi ginen telebista dizdiratsuaren aurrean eta dena amaitutakoan, betaurrekoak kenduta bertatik alde egin nuen beste inork ikusi gabe, zure etxe aurrean zain neukan leiho beltzeko Uber hura hartuta.

Eta Gepetok lagunduko nau airoski irtetzen, nik aurretik bera babestu eta lagundu dudalako. Mundu honetan, posizionatzen ez bazara lekua galdu dezakezulako. Herriko ibaia EusCognity AI enpresara bideratzean, ChatGPT 5.0 bertsioaren siliziozko zirkuituak uneoro urez frexkatzeko lehengaia igorriko diedalako eta horren truke, Ge Pe Tok nire alde manipulatuko dituelako zure hitzak. Milioika datu bateratzen dituen informazio kudeatzaile artifizial batek, etengabeko ur kantitate handiak behar dituelako bere funtzionamendurako, barne zirkuituetan sortzen diren tenperatura altuei aurre egin eta martxan jarrai dezan informazioa metatuz.

Garaiei egokitzea badelako garaiak garaitzeko modu bat. Garai eta ziklo berriek krimen perfektuak ardi men artifizialez egin daitezela eskatzen dutelako, bat eta hutsez.

Baina batean ere hutsik egin gabe.